

**JAUNA ARINGA (1)**  
**“Zeure arnasa barrendu zeunstan”**

<i>Elorri kiburua (ELR)</i>	<i>Elorriko lorea (ELRL)</i>	<i>Excelsior ald. (EXC)</i>
Zeure. arnasa barrendu zeunstan lur ori ontan, Jaungoiko. Eta, ai!, arnasak niregan baiño zeure barruan naiago.	Zeure arnasa barrendu zeunstan lur ori ontan, Jaungoiko. Eta, ai!, arnasak niregan baiño zeure berruan naiago.	Zure arnasa barrendu zeunstan neure lurrean, Jaungoiko. Eta arnasak nirean baiño zeure barruan naiago.
Estaltzen dauan buztin apurra otz-astun-umel-itsa da, t'ezin etsirik begian daukat, zerura, zutik jarrita.	Oben-leradun bustin apur au otz-astun-busti-sorra da. Zure arnasa zati garbia emen ilgo ete da itota?	Bustiña sor au, pekatuz itxu, otz eta busti bai bada! Zure arnasa –surik argien– emen ilgo da itota.
Zeugana nai dau, dardara zuriz, alkoolak aidera legez. Zeure gomutak ipinten deusta joran ta kexu-zotiñez.	Arima onek zeugan nai dau begiak argira legez. Zeure gomutak ipinten deusta nigandik alde bearrez.	
Nik biotz guztiz laguntzen deusat, bultzatzen deusat aidera. Berotasuna goza daijala, doakizula kolkora.	Nik biotz guztiz laguntzen deusat Doala zeure agora! Azkatasuna [sic] goza daijala alde batetik bestera.	Arima miñak indarririk baleu zure aurrera eltzeko, artungo zeunskit, zeure altzoan errukiz laztanduteko.
Noiz baiña naiko sendo t'esquier, iturri bat lez, garbirik, urtengo al dau, arin ta pozez, zeugana nire lurretik?	Noiz baiña lurrik gabe ta eskier, eun urdiñ soillez, garbirik, urtengo al dau arima onek zeugana ego zabalik?	Noiz lurrik gabe eta itxaroz eta argiez jantzirik egatuko da nire arima Zugana edo zabalik?
Oi ze su-garrak biztuko diran nire arima gaixoan, egoak bilduz, zeure sutean osorik sartzen danean.	Oi, ze su-garrak biztuko diran nire arima gaixoan, lurretik azke, zeure sutean osorik sartzen danean.	A zer sugarrak biztuko diran nire arima gaxoan lurretik azke zure sutean osorik sartzen danean!
Zeure errukia eskatzen deusut arimarentzat, Jainkoa. Buztiña-pean itotzen daukat zeure arnasa gozoa.	Zeure errukia eskatzen deusut animarentzat, Jainkoa. Bustiña-pean itoten daukot zeure arnasa gozoa.	Zure erruki neurtu eziña eskatzen deusut, Jainkoa, arimarentzat; itoten daukot zeure arnasa gozoa.
Laster askatzen ez badeustazu berandu barik ilgo da, ontzi itxutuan argi-begia itox iltzen dan bezela.	Jauna, aringa ezpazaiatorst nire arimea ilgo da, ontzi itxutuan argi-begia itxungitzen dan bezela.	Jauna, aringa ezpazaiatorst nire arima ilgo da, ontzi itxuan argi begia itzali doian bezela.

*OHARRAK:*

ELRL-ko bertsiorearen eta ELR-koaren artean alde handiak daude, nahiz eta olerkia berbera izan; ELRL-ko zenbait forma bizkaierazko, gero gipuzkeraz jarri zuen ELR-n. Handiagoak dira aldeak bi horietakoen eta EXC-eko testuen artean. EXC-ko aldaera da zaharrena, zalantzarik gabe.

(1) *Excelsior* aldizkariak eman zion olerkiari titulu hori. (Aldizkari hori Arantzazuko teologiako ikasleek ateratzen zuten.